

# Textos dialectales en documentos religiosos vascos

## 4. Goldáraz

JOSE MARIA SATRUSTEGUI

**L**a aportación de documentos dialectales inéditos en lengua vasca, que iniciamos con testimonios de Lesaca, Zugarramurdi y Valcarlos, incluye ahora la muestra de un valle más meridional en la geografía vascófona de Navarra.

Goldáraz, al S.O. de Echalecu, pertenece al valle de Imoz, en el partido judicial de Pamplona. Figuraba con ocho casas habitadas por 84 vecinos en el censo de 1801. Actualmente ha descendido la población aunque han mejorado las dotaciones y el nivel de vida en el pueblo.

El euskara de Goldáraz, según el mapa lingüístico de Luis Luciano Bonaparte, pertenece al alto-navarro-septentrional, subdialecto de Ulzama y variedad de Lizaso.

De todos es conocido el lamentable retroceso que está experimentando la lengua vasca en los medios rurales de Navarra, fenómeno que se agrava con el progresivo descenso demográfico y la oscura perspectiva del índice de natalidad. Es cierto que la reacción positiva de la población urbana ofrece un contrapunto esperanzador frente a la tendencia negativa de los depositarios tradicionales del legado lingüístico. La situación plantea serias dudas al respecto. Cabe preguntar si el número, así como el nivel de capacitación de los nuevos alumnos será capaz de contrarrestar la profunda erosión que padece el propio espacio natural.

Por otra parte, no es seguro que el noble y plausible esfuerzo de los padres que propiciaron la recuperación del euskara en las aulas, pueda fructificar en el entorno adverso de la calle y de las relaciones sociales, sin el soporte eficaz del diálogo en familia.

La respuesta la tienen los protagonistas de la joven promoción.

Pero en el mejor de los casos, esta generación escolarizada sólo conocerá en la ciudad el modelo normalizado del euskara unificado, imprescindible por

supuesto, para la supervivencia del idioma como instrumento de comunicación entre todos los vascos, pero que se verá empobrecido si un día le llega a faltar el soporte valioso de las variedades dialectales, que constituyen el tesoro inestimable de la herencia milenaria.

De ahí, que el trabajo de campo tanto a través de la consulta personal, como por la búsqueda y recopilación sistemática de documentos escritos, sea labor prioritaria en estos momentos de transformación profunda en la sociedad.

## Autor

Los escritos de esta colección llevan por suerte la referencia del pueblo donde se predicaron, así como el año, sobre la portada en blanco de cada cuadernillo cosido con hilo consistente por el dobladillo central, lo que facilita el trabajo de identificación del autor.

Puestos en contacto con D. Pedro M. Ezeolaza, actual responsable de la parroquia de Goldáraz, amablemente nos ha comunicado que la grafía del sermonario coincide con los asientos firmados en los libros parroquiales por D. Joaquín Arbilla y que datan desde el 17 de diciembre de 1833, hasta el 6 de febrero de 1890. Se trata, por consiguiente, de un sacerdote diocesano que ejerció durante 56 años el ministerio pastoral en esa localidad. Permaneció prácticamente toda la vida en el mismo destino.

La muestra que presentamos en este trabajo correspondería a la primera cuaresma que predicó en la parroquia.

El material disponible por mi parte, consta de nueve homilías doctrinales, más bien largas, ya que oscilan entre nueve y trece páginas (155 x 210 y 165 x 220 mm.), correspondientes a esta primera etapa sacerdotal (1833-1841).

Tres escritos de esta colección fueron publicados en el primer tomo de *Textos Antiguos Vascos*<sup>1</sup>, el tercero de los cuales, correspondiente al domingo 21 del año 1839, sustituye la referencia de Goldáraz, por *Eguillete*, sin que se aprecie ninguna otra diferencia en la letra ni en la redacción del documento.

## Observaciones

Se observa cierta inseguridad por parte del autor en la utilización alternativa de formas dialectales de Navarra y Guipúzcoa. Hay flexiones verbales propias de los dialectos navarros: *arquicen gara* (15), *consideracen duzutelaric* (32), *atormentatuzutenac* (34), *adicen duzutenac*; sin que falten abundantes ejemplos de formas guipuzcoanas: *consideracendegularic* (20), *consultacen badegu* (67), *eztezu ezagucen* (139), *ea cein elegicen dezuten* (207).

También la grafía es irregular, sobre todo en la alternancia *guencen/quen-*

1. J.M.SATRUSTEGUI. *Euskal Testu Zaharrak I* (Iruñea, 1987) 207-229. or.

*cen*, aunque prevalece la primera forma: *guenarazteria* (198), *vicie guenceco* (199).

En el contencioso i/j, destaca abrumadamente la primera letra: *iaquin* (11), *iiodichecken* (24), *iositula* (41); pero se observa también la presencia de j: *juntacen* (11).

Hay una clara tendencia a la utilización de la *e* final, sin excluir ni mucho menos los ejemplos de las palabras que terminan en *a*. Se da, incluso, el caso de que una misma palabra adopta ambas formas: *arance* (251), *aranza* (256).

Es posible que parte de esta inconsecuencia se deba a problemas de adaptación del autor en sus primeras actuaciones fuera del lugar de origen. Puede suceder también que el fenómeno fuera propio del habla local por aquellos años.

En el primer caso, convendría estudiar la biografía del autor para determinar su procedencia. Quizá resulta ilustrativo el dato de que estos documentos hayan aparecido en Arruazu, donde hubo un párroco del mismo apellido, Arbilla, quien regentó la parroquia durante las últimas décadas del siglo XIX y los primeros años del XX, lo que sugiere la posible relación de parentesco. Efectivamente, ambos eran naturales de Madoz.

Queda también abierta la vía alternativa de comparar estos escritos con los relatos del popular "Bertsolari de Goldáraz", cuyos relatos fueron recogidos por R. M. de Azkue y posteriormente publicados por "Príncipe de Viana", juntamente con algunos versos recuperados por un hijo religioso<sup>2</sup>.

Asignatura pendiente para otra ocasión.

### Domingo 5. de Quaresma.

*Recogitate eum, qui talem sustinuit a peccatoribus adversum semetipsum contradictionem* (Heb. 12) Año 1834.

*Ainbestecoa izanducenpena ainbestecoa pesalumbrea, eta ain andie sentimentue Jaungoicoaren erriez artuzuena Erregue Jesusen eriozagatic Erregue ain Santua galdubearragatic ece, aseguracenbaitigu Escritura Sagradaoc guelditu cela orduesquerostic legue eta costumbre universalbat bezala Ysraelitarren artean, ece demostracio pesadumbrescobates usatubearzuten aldioro, casotriste edo contrarioembatean, Profeta Jeremias Santuac ocasio artan disponitu citien lamentacio eta negarras<sup>10</sup>, valiacea eta oranic gueiago Ynterprete bazuec añadicendute urteoro, edo dembora iaquin batean juntacencirela aren erioza berriera, baño gauza ciertoada gucien gañean izanducela ain escesivoa negarra, ece adicera emateco Profeta Zacariasen juicio universaleco negarrac comparecenbaitu Erregue Santu eta piadoso onen eriozean, izanduciradenaquin. Gaurbada arquicen gara juntaturic pasioco igande onetan templo sagrado onetan negar*

2. R.M. de AZKUE. *Euskalerriaren Yakintza* t.II (Madrid, 1942), pp. 179-180; 249 a 252; y 330 a 449.

Andrés ASTIZ. *Goldaraz'ko Bersolariaren kontu eta beroak*. (Iruña, 1960) Bere seme Francisco Astizek bilduak.

*Resigitare cum opere vestrum sustinuerit apud fratres vestros  
et resipisceris castitatem vestram. Heb. cap. 12.*

Stimulo et iurando ipsa amicitia fideliterque  
non audie sibi trahitur. Parviorum enim artes sed et  
eiusdem invenientur. Erigitur amicitia ex aliis. Ut in rebus  
felicibus, usque in rebus fortioribus. At vero quod est  
cela ordinatio ipsius rotulea sequitur. At utramque minimaliter  
et alia. Ex militari arti, ea demonstratis primis imbutis  
estates suotibet rotulae. Alioquin, castigata de cibis, rite  
fatuus, frotata, siccatus, scissus, resisit artus. Inforti  
strenue, durus, tenuis, et rugosus; valens, durans, quem  
estipote bonum, amicidante interro, id. Diminutusque, brachium  
subducendo non circa cervicem, bene gressa extremitate, quicquid  
nostrae primitudine, cum esset in rugina, et ad amputata, proficit  
et amans posse universalis rugina, comprehendit. Et  
in propriae eius ratione, tandem inderinguit. Tenuiterque amputa  
gum, quoniam tenuis primus erit in certam tempore, regido ostendit, ne  
affitter, et tuncque, Tenuis enim, brachio, longior, longiusq[ue] sit pro  
et fletu, et rotulae, utratorum da grandia anna Domina. Ita quecumque am  
dicique nosce regi. Dominoque, et omnipotenti bracchio, balsam  
principalemque spiritumque, consideramus. Igiturque, Parviorum  
campanarum probatura amicitia trahitur, prius, tamen  
magistrorum causa, bala in baluus randa. Postea quin plumbulus  
in Campanu[m] sine bala, arietam bala. Omnis campana contineat  
plumbulum, istudque, consuetu[m] nundine, et obclavis, quicquid  
considerauerit, dimicato, et apertu[m] iactu[m], et aperte, quicquid  
et ipsius cogitatur, neque agere, bala, et arietam, et aperte, quicquid  
alii possunt. Quod multumque supponit, et negant, tamq[ue] postura

eguiteco, ez Erregue Joziasen eriozas, baicican Erreguean, Erregue Cristo gure Redentorearen eriozas, eta naidu aren Divina Magestadeac asisti dezagun aren trajedi dolorosoac, ez gorpuzarequin bacarric, baicican principalmente espirituarequin<sup>20</sup>, consideracendegularic Jaungoicoaren ontasun paregabecoa ainbeste trabaju padecicen, eta onetara muguiacizuen causa, bada ezbaicen izandu besteric gure pecatuec baicic Jeremiasec dion bezala, argaticanbada ongi izanenda contemplatudezagun motivoa, cergatic naiduen iaiodichecen gure negarrac consideraciotic, discretoa eta pruedentea izateco, eta pruedenciaudanece-sario J. C. pasiogatic negar egun beardenean, cergatic guertacenda aniz aldis pasacea sentimentu gucie suspiro, eta negarretan, motivoa consideratugabe, eta circunstancietara atenditugabe, predicadoreac cer esatenduenadicera ucigabe<sup>30</sup>. Ecusidezazute nere cristabac esplicaturic izgutitan, cermodutan aditubear duzuten J. C. pasio Santua consideracen duzutelaric dela Jaungoico guizon eguinbat guizonaren erremedioraco padecicenduen ura, eta bere pasio Santuen guiena atormentatuzutenac, izanduciradela gure pecatuec, alabada adicen duzutenean preso eguitendute Salvadorea esaiac, acusacendutela tribunaletan, colpacen eta azotacendutela, pensatubeazute, eta iduqui ciertotaco, guizon infame aien artean arquicenceradetela ceroc, eta aiequinbatean conjuracencera dela Jaunonen contra, bada ezta dudaric zure pecatuec Cristaba, acusacenduela zure libertadeac lotucendutela zurelapurretag, azotacendutela zure atrevimentuec ematentiotela adatera beazuna<sup>40</sup>, eta ozpiña eta finalmente zure desobedienciecsiosutula escuec eta añec gurucearretan. Avertencieben conforme, ain iduricenzazquit diradela precisoac eta necesarioac pasacennaiz manifestacera pena eta tormentocruelac J. C. bere pasio Santuen padecitucituenac, considerachezte servidade correspondenzainaquin urtzaitezten negar bicibazuetan, ezambestearrec padecitucituen oñaceacgatic, nola gurepecatuec izanducirela ainbeste padeciceco motivoa. Ojaungoicoari naidaquiola nerdedeseoac lograceutanoala guertaceco eta nic esplicaceco beardiraden intencio eta fervorearequin misterio tierno eta dolorosaie, suplicatu dezagun gure Redentorearen ama lutos bestituric dagon orrengandic asistencia eta lagunza<sup>50</sup>. Ovirgiña pura! OSoberana pricesa, affligituric arquicenzara zure seme maitearen pasio dolorosoarequin, eta ain affligituric ece aren pena bacoice, baicenzurezat ezpata, zurevioza alderan beste pasacen zuena. Bada ama dulcea penasomin oriecgatic eta oñece larri padecituciñucen oriecgatic escacendizut erdesizazula Espiritu Santuegandic nereauditorio oni, zure Seme Santisimoaren pasio Santue beardenfrutuarequin proponiceco argutasuna. Ezagumena. Oerregina Sacrosanta, amorio ain Altuaren espresioneac manifestaceco egonbeanuquela sino divinoas abrasuturic. Baño Señora badaquizu zuc ateracen dituela Jaungoicoac bere alabanzac aurren agotic, eta valiacendela instrumentu debilbazues bere omnipotencieren obraric andienetaco<sup>60</sup>, eguiñezazubada nere ezpanac gueldidaitecela purificaturic Ysaiesenacbezala obrabat ain andiraco, eta nere vioza gueldidiadiela sudivinobates isiquiric, comunicaceco onen partea nere auditorio nobleari, auda escacen dizuden gracie, eta artara obligaceco, salutacenzaitugu gucioc humildadearequin, esatendiogularic Ave Maria. Recogitate eum.

Baldin consultacenbadegu S. Atanasioreauquin cein egunetan criatuaizanducen gure Aita Adan, esanendigu Marchoaren ogaita bosgarrenean. Baldin re-

flesionacenbadegu bigarren Adan, J. C. guizon eguincena eranzunendigu egunberean<sup>70</sup>. Finalmente erreparecenbadegu gure Jesus maitea ilcen eguna, arquitucodegu egunberean ilcela. Auonela delaric claro ezagunda gure lendabikico Aitaren creacioa, semedivinoaren encarnacioa, eta onen erioza, gucie izanducela egunbatean, urtediferentet(an) bacenere. Yruegun ebetic, esplicatunaidut Jesusen pasio tristea, eta lamentagarria, araco eguna casoric den izigarriena, guertatucena historiec contacenduten bezala, adidezazute nola esplicacenduen Sn. Juan Evangelistac. Celebratu ondoan J. C. vere discipuluaquin asurieren afarie, eta eman gracie(c) Aita eternoari acostumbracenzuenbezala, iequicen aren Magestadea, eta ioan cen bere discipuluaquin Oliveteo mendira, ceñetan dagoan Jetsemanico baraza, ceñetan comunmente eguitenzuen etacen oracioco lecue<sup>80</sup>. Adicenzuen bere vearietan bere esposaren voza ceñec esatencion, yaordueda nere Esposa zere varazara etorceco, etainstanteco ateracen are-raco eta allegaturic Jardin dichosoarreta eranzutendu. Etorrinincen nere espesa, etorrinincen barazontara, zuc esanziñerenbezala, baño ay, billacenduden frutoada mirratristea eta somiña. Ciertamente nere Cristabac, orobat izanducen allegacea barazara eta bantzartu bere iru discipuluaquin Pedro, Juan, Diegorequin oracioeguitera, nola arrapacea tristurasic denandienac, eta paracea consternacionric denandienean ainbestean ece, araco Jaun bere secretoac Divinidadarequin comunicacencituena, bayacenbaita orain bere penaren partea, discipulueri ematea, eta aien compañía escacera esperadizarazute emenesanzien, eta zaudete iazarriric, nerequin<sup>90</sup>. OJesus Ceruco abarastasuna. OJesus bienabenturanza cumplitura. Norc Jauna paratuciñucen estutasun onetan? Cergatic tristecenzara nere Redemtorea ezpacíñuen besteric deseacen guizonaren erremedioraco vicie ematea baicic? Baño ai esatendu S. Agustinec, tristecenda, cergatic Medico Soberanoa cembezala sendatunaibacituen desdichatu aiec, eta ecustenzuen erobazuec bezala, coleras beteric, despreciatucozutela aren medecina atrevenciric den andienarequin, eta emanen ciotela erioza medio den estrano eta infameaquein. Anima aiec galcea, eta beste asorenac, ceñec malogra-tubeaztunaren pasio dolorosoaren frutoa, izanducenaren tristuraren causaric principalena<sup>100</sup>. Baño Ogure Jesusen misericordinfinitoa eracusicien Jaun onec tristuraco lancetan, acudicezatela oraciora, erremedioric onena cembezala, eta exemploa emateco apartatucen discipuluetaic piscabat, eta belaurico iarriric abiaticen oracio eguiten arribaten gañean fervoreric den andienean: Baño ez sola(men)te iarricen belaunico bacarric, baicican paratuzuen bereaurpegue lu-rrean. Nor ezta arricen? lurrean aurpegue paraturic Jaungoicoaren semea? bai nere Cristabac, artucituen gure pecatuec beregan esatendu Ysaiasec eta Publcano pecatues beteric dagoana bezala ezta atrevicen veguiet Cerura alchacera<sup>110</sup>. OJesus lurraren gañean macurtua. Nola arquidaiteque guizonic, cristabic sobervioric ecusiric ejemploa Certas ensobervicenzara ausabesteric ez izanic, ecusiric modu onetan Aita eternoaren semea? Baño norc paracenzaitu onela Jesus dulcea? Pecatariac Jaungoicoaren vorondate Santisimoa despreciacendute-nean aren legue divinoa an esplicatua, eziolaric obedecitunai, baicican seguitunaiberea. Allegadaiteque gueiagotara atrevimentau? archarbatec eztuela deustan iduquibear Jaungoicobaten borondatea? Opicardieden andiena. Modu onetan postraturic Ceruco eta lurreco Magestadea erregucen eguitendio oracioa irualdis bereaita etornoari, eta esatendio modu onetan<sup>120</sup>. Nere aita baldin po-

siblebada nigandic calizau, eztadiela eguin nere borondatea, baicican zurea: ceñec esanaiduen padeci dezarala nic, baño izandadiela penagenero ceñetan emenbezala dinoq(ui), eztadien izan zure ofensaric, pecaturic. Onela eguitencionoracioa gure Redentoreac Aita Eternoari, aiequeta agoniec arrapatu izarditzen odola isurizuen arteranocoan, eta ain abundanci andienece, aren corpucetic iechiric lurra erregatu zuen arteranocoan, Ocercombatea, cer estupena. Odola izarditu, bai nere Cristabac eta cergatic? guizonaren erremedioagatic. O Cirstaba. O pecataria, cer izanenda zutas baldin baño onecezpazaitu garbicen? erregacea onec ezpadizu indar ematen acionac emanarazten, eta ezpazaitu sendacen<sup>130</sup>. Ay zure miserablea Ezequielec esaten zuen bezala, Jaungoico guizonaren izardi ain andiac eta abundateac, ezpazaitu garbicen zurepecatuetatic, zere malicietatic. Oanima Cristianac cein guretacorentzat izanbeardute izardioriec carga eta condenacio gueiagotaco? Acabatubitez gure pecatuec izardieren frutua erdeisteco. Onetan Judas traideorea, ceñec zeuquen salduric vere Maestro Divinoa ogaita amar dirutan allegacenda iende armatuequin Ceruco, eta lurraco Jauna preso eguitera, Judas infameacer eguitenduzu? Eztezu ezagucen ain preciochiquien salcenduzunau?<sup>140</sup>. Baño Cristaba zuc ezagucenduzuna cembataldis ofenditu etasaldudezu precio guchiagoagatic? Emancion traideoreonec besarca Jesusi ceinbaicen sinalea lotucecoa, eta eztuezzagucen ainbesterequin Adicera emateco aren vorondatea cenean eguiñenzutela preso. Adicenditu Jesusec soldaduen arroituec eta erreccibimientura ateraric galdeguitendio animosoa ece nor billacenzuten ambeste aparatorequin? Eta eranzutendiote, Jesus Nazarenoa. Ni naiz eta berela erorcadire guciec lurrera; galdeguitendiote berriseriequiceco licencec emanic nor villacendezute? eranzunzioten guisa berean: esandizutet ni naicela<sup>150</sup> eta uztendalocera gogorric eguingabe eta bereala ateracendute Jetsemanico barazatic insolenciric denandienean, eta oiucabota-cendiote cordelbat lepora, eta abiacenzazquio tiraca compasioric gabe, bazuec ematencitoben bulcazonac, besteac puñaladac, besteac tiracenciosten illetatic, besteac botacenciosten listuac, besteac iocenzuten lanzan ondoaquin, eta besteac eztoparaciric botacen zuten lurrera instanteoro eta sartuzuten Jerusalengo ciudadean, arroitu andian artean, ateracenda iende gucie leiotara consulos beteric, ecuscarriura ecustera auda orainbostegunduela ambeste triunforequin vanidade ain triumpoarequin erreccibitucena. Cer novedade daau? Orduan deicencioten Ysraelgo Erreguea<sup>160</sup>, Daviden semea, Mesias Salvadorea orain Samaritanoa endemoniatua, ildadiela traideorea. Omingain infamea, Ynjurieben artean era-manzuten J. C. Aanasen presenciera, eta onec galdeguincion bere doctrinas eta discipuluenas, eta errespondituric humildaderic denandienarequin ministro embidioso aietaco batec iozuen bearondoan burnisco escubatequin, eta aguiz go-gotic Magestade Divinoari lurra joaraciartean dio S. Vicente Ferrerrec. Oculpac. Opecatuec zureac, eta nereac Cristaba cer estadutera ecarrizuten Jaungoi-coaren semea. Cerue aricenda, oiu eguitendu Sn. Juan Crisostomoc, lurracara-cen da alaco paciencie, eta alaco atreviencie ecusteas<sup>170</sup>. Ceraricerate Ainguera Santuec? Nola permiticenduzu zuc Jesus nerea? Baño aren Magestadeac egui-zuena izanducen, beguirecea amorioarequin esclavoari eta esancarinoarequin, baldin gaizqui iceguin baldinbadut esandizarazu certan eta ongi iceguinbadut cergatic ericenazu? Cergatic galdeguitendio verriz ere, ezagutedezan eztela motivoric, ofendiceco cergatic galdeguitendio, cergatic barcatunaicionetezcasti-

gatu, baicican convertitu. Onere Jaungoicoa bedicatuac izandaitecela zure misericordie, ecusidezazute nola uztendituen aztucera agravioac Jaunonec, obligaceco gu correspondicera. Anima pecataria norezta errendicen dei amoroso onetara? eta ezta arrazoheric escusaceco<sup>180</sup>. Anasen echetic deramate gure Redentorea Caifas Pontificeren echera, cenetan cegoan juntaturic Escriba, eta Fariiseoan concilioa, emenasco, carguren ondorean galdeguincioten eaAita Eternaren semeacenporventura eta baiez eranzutearequin, asarretucequizquion alacomoduen ece, iequiric Pontificea catedratic austen ditiliaric soñecoac esatendio blasfemoa, eta guisaberean consejeroac, ildadiela, ildadiela, eta aietaco bazuec emaniciotenanz golpe aiequeta necaturic iocan, oacera ioanciraden arteranocoan uztenzutelaric redemtorea es(cla)voan mendeau. OJesus nerea eta cergaba esperacendezun ambeste izanducen arrec gau arretan padecituzuena ece eztela ongi iaquiñen juicioco eguneranocoan azotatuzuten aiequeta veguietatic, agotic eta sudurretic odola votaceranocoan<sup>190</sup>. Baño gauonetaco añace andien artean gueiena sentituzuenacen berediscipulu S. Pedroc bere adisquide maiteac, escogituarrec irualdis ucacea. O Pedro Ain guizon gaiztoada ordagoan ori, ezagutuduzula esatea losa arcen baduzu? Eta cembat aldis eguiñezuzuc aubera Cristaba? agosa(i)torcen duen cristaba cerala, baño obrac gentileñac dirade. Pasatuzuen gauura nolapait, eta viramonean juntacenda concilioa, eta determinatzuen eriocera sentenciacea Jaungoicoaren semea, eta bializuten Pilatos Presidentea vicieguenaraztera. Esaminatuzuen Presidenteac causa, bein, bi eta gueiagotan, eta ezuen arquicen motivoric vicie guenceco, eta guciecela intenciocharra eta embidia eta deseacenzuelaric Jesus libracea discurrutic和平中立, baño alferric<sup>200</sup>. Lendabikicoa Herodesengana bialcea, aunola baicegon asarre concilio arrequin oneclibratuko zuelacos. Baño ez comformatucen bestean oponioaqun. Bigarrena parecea competencien Barrabasequin, guizonain infamearequin, ecusiric desigualdadea Jesusen libertadea escazucozutelacos. Ea esatendie Pilatosec, ceinnaidezute gueldidadien libre Jesus edo Barrabas? Jesusda justoa, inocentea, mansoa. Barrabas lapurbat, guzonilzalebat. Ea ceinelegicendezuten, eta guciec esatendute eztegunai Jesus baicican barrabas, ildadiela Jesus Nazaronoa Crucificadadiela Jesus. Opicardie pareric gabecoa baño opecataria eta cembat aldis eguin diozuzuobera, orobatda peccatu eguitea besarcacea, nola esatea ildadiela Jesus crucificatudadiela Jesus, eta vicibedi demonioa Barrabas. Ecusiric Pilatosec ezuela balio bigarrenmedioac<sup>210</sup> baliacenda irugarrenas, eta historietanarquicenden injustonas: manacendu crueldaderic denandienean azotatue izandadiela Jaungoicoaren semea arcenduelaric instante arretan uciric ercanacioco figura, esclavoric den gaiztoenarena azotean oñacetara iarcearequin. Eramatendute Jesus inocentea Patio andibatera eta angucentiote, Lapurrac iende gucien aurrean bere soñecoac. Ocer losa artuozuen lancearretan. Virgiña ama Santisima, nondago zuremantoa zure Seme maitea estalceco? Ceruco Serafinéc cereguinciraden Magestade Soberanoa estalcencinucenegalac? Cristabac Jaungoicoaren semeac J. C. larru gorriendago<sup>220</sup>. Bada inorrere arroparenbat ematendionic? J. C. iaztenduzute pobreaki soñecoa ematen diozutenean. Onola larrugorrituric Salvadorea locendute pilarebatera cate gogorraquin, eta burniscoquin, eta abiacenzazquio colpeca, eta azotacendute aiequeta aragui gucie gorrituarteranocoan, andicenzaio gorpuza, austenzazquio zain Sagradoac, eta adola dario aldegucietatic, eta neca-

*turic berdugu bazuec ioca, ateracendirade verrieac latigoac escuetanditutela, eta abiacendirade colpeac descargacen, baño eztiole ematen colperic araguietan baicican ezurretan bada agartuciraden guciec orduco. Ezta asqui Aita Eternoa<sup>230</sup>. Veguira zazu zure semeadela ambeste padecicenduena: segui aicinā esaten du Justici Divinoac, consideradezatela pecatariac cermereciduten aren culpac, onela castigacendutenean gureculpac bere gañean artucituena. Necaturic vigarrénac, ateracendirade beste verdugo bazuec, burnisco azotequin, eta segui-cendute azotatues lurrera botacen desmaiaturic eroriarterañoocoan Jesus, eta orduen an beguira zeuden bazuec ecin eramanes arec padecienzuena ebaquicitten socac, eta sueltatu cateac loturic cegoanac esatentzelaric<sup>240</sup>: Acabatubeardezute guizonau eta uracen pretendicenzutena, eta egunzuten demostracio Pilatosec eriocetic libracea deseacenzuelacoagatic, baño obra piadadescoau izanducen motivoa nola baicegoan Salvadore aia odolustua, lurrean erorceco.*

*Olastima, Ocruidadea, beñerere ecusigabea, berearretan azotatuzuten allegacencirelaric azoteguciecs bost milla eta berrogaiterañoocoan. Oaita Eternoa oranīc ere oranicanere ezta guelditu satisfacio osoa arturic zure justicie? Bai dio Cardenal Damianoc. Acabacendirade azoteac, baño oranīc eztirade acabacen cruidadeac<sup>250</sup>. Bezticendute dio S. Vicente, Vezticendute gure Redentorea burla gueiagotaco Corona dena arance zorroces betarequin, eta cañabat escuen, eta soñeco zarzarbatequin, adicera emateco burlasco Erreguebat cela, Eguiesco Erregue gucien erreguecena. Oanimac eta cer ecuscarrie, ain lastimosoa, cer izanencen ecuslea Jaungoicoaren semea buruticasita onetarañoocoan llagabat eguiñic, veguiec odolesco iturrie, burue aranza zorroces josiric, eta cañabat es-cuetanzuela eta burlaturic? Ceinvioz ezta lertuco auadicearequin? Ceinezta beratuco arribezain gogorrabada ere? Onere Salvadore dulcea, baldin zure erioza bacarricasquibacen gu redimiceco, gu pecatutic eta Demonioaren mendetic libraceco certaco ambeste burla, pena eta tormentu<sup>260</sup>. Norc aditudu one-laco coroac generoric eta tormenturic? Jaungoicoa burlaturic eta desfiguraturic modu onetan? Baño norc paratuduone(la). Ay nere Cristabac zure pecatuec estaduonetan. Burlaturic modu onetan J. C. Majestadea, eta idurituric Pilatos Presidenteari urricalducocela erria ain cruidade andien erituric ecustearequin determinatzuen ateracea trajearretan berean iende arren gucien aicinera aien errabie aplacaceco, eta paracenzuelaric balconbaten aurrean esancien ecce homo beguire dizozute guizon oni, danola esatea, veguiredezazuten nola paratuduten guizonau zueri gustoa eguiteagatic bacarric, izanican inocentea<sup>270</sup>, badi-rudi urricaldubearzutela guazonaiecs ecustearequin ala atormentatua, baño al-contrario esatendute ildadiela gurucebatean. OCristaba etanola indignacen-zaitu Judioen errespuesta onec, baño indignazaitea cere contra cergatic orobat eguintenduzun zuc pecatue eguitenduzunean, crucificadadiela, ildadiela Jesus esatendeu zure obraquin. Norc izanendu vioza pecatue eguiteco, eta porconsi-guiente crucificatuaizandadiela Jesus esateco? Ecusiric finalmente Pilatosec Ju-dioac zeudela aforraturic beren lendabicico pretensioan eta emperadorearequin zuen adisquidetasuna galduco zuela veldurrac, sentenciatzuen eriozara Jaungoicoaren semea<sup>280</sup>. OPilatos noladezu valorea onelaco sentencie pronunciacea, iaquiñic Jesus inocenteacela? Gueiago pisacendu vildurczentzaitu lurreco principearequin adisquidetasuna eta graciegalceac, Erregue gucien principeare-*

*quin adisquidetasuna eta graciegalceac, Erregue gucion Erregue, eta Ceruco eta lurreco Jaunaren gracie galceac baño. OPilatos eta cembaterano allegacenda zure ichutasuna. Apenas emancen sentencie, admitituzuen Jaunarrec apelatugabe injustoa bacenere, eta bereala eraztendute asuri inocentea escarniotaco paratucioten purpura eta caña arretatic, eta paracenditiote bere soñecoac, guciec ezagueagatic, Onore Cristabac, aindesfiguratua cegoan aren aurpeguiie azotequin, listuequin, colpeaquin ece soñecotatic bacarric ezagutubaicezaqueten uracela,<sup>299</sup>, Bereala ecarcenditute gureceac Salvadorearendaco eta bi lapurrenzat cein sentenciaturitzen arrequin batean, illuminaceco onela J. C. fama eta cargacendute (tute) aren sorbalda llagatueta, Gurucea ceñetan izan bearzuen crucificatua, eta idiquicendirade Palacioco ateac, eta abiacenda billa eguitenda pregona sentencierena, ceñetan declaracenduen Jesus Nazarenoa gaiztotaco, eta iende alborotatu, eta Soldadueta eta Ministroas acompañaturic abiacenda caminacen Jerusalengo carricac barrena, Calvarioco mendira, ceñetan quendubear cioten vicie. Jaungoicoaren Semeac nola eceradete illcen penaren uses?<sup>300</sup>. Gurucea soñanduela aterabeardu Jaungoicoaren semea, arretan crucificatua izateco? Jerusalengo Carrica bezala supliciora ioateco Jesus inocente gaizquieguillebat balice bezala. Cer odol preciosarequin ioanbeardu Carricac erregatues Maria Santissimaren Seme inocentea? Opicardie parericangabecoa, bai alada, ala iuanbeardu eta onela doaielaric arquicenda amarguraco Carrican Maria Ainguerueren Erreginarequin. OCer opacea au. Norc esanendu anpasatucena? Anillunduciraden Ceruco eta lurreco bi eguzquier arguitasunec. An beguiracencioten amasemeac cara cara betecbesteari, eta icic ecin esanes gueldituciren erdiratuac bi viozac oñaces<sup>310</sup>. Ocer esanenzuten aiec. Ay nere ama esanencion bere barrenetic semebenditoac, certaco etorriciñen onera, ama nerea, maitene-rea? Zure oñaceac acicenditute nereac zure tormentuec aumentacenditute ne-reac, izuli zaitez amanarea izulizaitez zure erretirora, ezaibadacorrespondien zure virginidadeari guizon ilzale eta lapurran compañie: baldinala eguiten badezu, Onore ama maitea, templatucoda biondolorea izulizaitze acera. Ouso nerea, aiequeta diluvio ur ebek acabatuartean Cergatin eztuten arquituco zure oñec non descansatu baño porelcontrario penas beteric esanenzuen virginia benditac; ay nere semea, nere vioceco prenda, cergic manacendirade apartanadiela zure presencitic?<sup>320</sup> Zuc badaquizu nere Jaun eta Jaungoicoa inorare ecin juannaitequela zugabe, eta eztezaquerela izaniñon ere zugabe consuloric, zuregandago nere vioz gucie, nerevici gucie. Nolabada apartatunaiteque zure compañi maiteorretatic? baldin erreccibicen banazu zurepechoaren varrunean, orberean izanennaiz zurequin crucificatua eta sepultatua, zurequin edanendut ozpina eta venenoaren edarie, zurequin penatuconaiz gurecean, eta zurequin batean ucicodut vicie, onela eguiñenzuen Birgiña Mariac eta onela ibillicozenzuen ama onac bere Semearequin batean vide penoso ura<sup>330</sup>. Allegacenda finalmente Jesus Calvarioco mendira eta bereala guencenditiote soñecoac aragui puscaquin ceinceuquier isasieci llagataco odolaquin, eta larrugorrituric manacendiote ecindadiela gurucebaten gañiean, cein ceuqueten preventuric crucificaceco. Ocer oaceaau Jaungoicoaren Seme batenzat, eta onela cegoalaric abiacen zazquio escueceta oñec iosten, austen ditiotelaric zañac, eta iosiric eraguicendute gora, eta bat batean uztendiole erorcera zulo batean gorpuzgucie icaraceco, eguiñenbezala, eta uztendute zuloan aseguraturic Ceruco eta lurreco Jaun eta*

*Javea. Allegabedi Paraíso Eternoa, bada dauzqui idquiric ateac, sarceco andican anima cristianoac, egur precioso onen medios<sup>340</sup>. Yruordus vicitucen gurucean gure Redentore amoroosa, baño ambeste desconsulorequin ece, bere aita-rañocoac, desamparacenbaitu discipuluec uztendute solamente Ama Maria Andre devota eta Sn. Juan Evangelistarequin dacoluna firmea gurucearen onean. Opena, pena guciec baño gueiagocoa. OMartirio berrie bi bioz abrasatueben-zat Norc esandezaque OJesus ona norc esandezaque norañocoan allegacencen zure sentimentue, zure amamaitearen angustie, eta penac consideracequin? Eta norc manifestatudezaque, OVirgiña dolorosoa, norc manifestatu dezaque zuc artuaciñuen pena zurevioceco sue<sup>350</sup>, Jaungoico eta guizon equiascoa ambeste burla eta tormentuen artean ilcen ecustenciñuean? Uztendut nere Cristabac consideracio au zuen devociora eta pasacen naiz esatera, ece continuacencituelaric bere finezac Magestade Soberanoac escacen edo Erregucendio Aita Eternoari bere Esaiegatic encargaciolaric bere ama afilituaren cuidadoa bere discipulu Joani, eta onen eta gugucion cuidadoa bere ama Bienabenturaueri, aguincendio Glorie lapur onari declaracendu guizonan onagatic, egarrie manifestacendu desamparo consulo gucierena, eta finalmente eguitenzuelaric carrasi milagrosobat, guciec losatucituena, esanzuen modu onetan<sup>360</sup>. Nere Aita zure escuetan encomendacendut nere espiritura, eta macurczuelaric bereburu Divinoa, ilcen. Nere Cristabac ilcen Jesus, acabatuzuen bere bicie nor ezta icaracen nor ezta arricen adicearequin bacarric? Nola ezcara ilcen damueren uses? Nola ezta austen gure vioza ecuscarrilastimoso onen vistan? arriez puscadirade izanbeardegu arriez baño gogorragoac? Opecatari gogortuac. Oviox sentidoric gabecoac. Veguiredezazute cer estaduten paratuduten ain losagarrien Jaungoicobat gucie gure pecatuec JesuC. padecicen eta ilcen gurucebatean peccatueri acábera emateagatic eta gugelditubeardegula vicierequin ura ofendiceco? Oesquergabetasuna<sup>370</sup>. Virgina Santissima ama Jaungoico encarnatuerena, ceriduricenzaiztu guizonan correspondenci onetas? Ceruco Serafinac, Ainguera dichosoac, Ceruco Ciudadanoac, arrizaitezte onelaco atrevimentues. Norc siñesta lezaque? Anima Cristianoa anima J. C. odolpreciosoaren costus redimituric zautenac, onela pagacendiozute Jesusi amaren amorioa eta zuengatic vicie uzteco generosidadea? Eguindizute agraviorenbat onela trataceco? Ea peccatari esquergabeac cerasatenduzute? Oranicere ezezagunac eta sorrac eguitencerate? Eta baldin ezpadezute eguiten casoric nere quejas guti estucen bazaituzte nere galdeerac, indar guti balinbadute nere izac, adidezazute bada iceguiten<sup>380</sup> galdeguiten eta quejanzaizute ezgutiago ece Jaun Divinoa baicic J. C. crucificatuarrec berac. Populi meus quid feci tibi? Nere erri Cristianoa cer gaizqui eguindizut nic? nere vioceco Semeac, ceñengatic padecitudiden ambeste onace, ceñengatic nagoan larrugorrien, eta guruceonetan josiric, semeacambeste gostaric zauzquieranac, zuen bearric eznuelaric semeac ceñengatic emanennituquen milla vici alabearbaliza, esandizarazute claro Certan ofendituzaitutet? cergicatic tracatenazute zuen esaie banince bezala? gaizqui eguiña izanduzan eternidade batetic amacea? agravioa cruelbat egunnizuten izatebat ain noblea ematea?<sup>390</sup> injurieembaizanducen ambeste medios conserbacea? ofensarenbat izanducen escuec eta onec ilce cruelas iosite uztea, burue aranza zorroces, eta pechoa lanzadas? Agravioembaizanducen, nere Elicera ecarcea, salvacioa aseguraceco? Quid feci tibi? Cer eguindizut Cristaba onela ofendiceco. Dacausae-*

*do motivoa zure pecatuec merecizuten bezala ez castigatua eta penitencie egiteco dembora ematea? dacausa compasio eta misericordies beteric esperacea, cerorrec infernuetara ioanaicinuelaric? Responde mi? Eranzundizarazu balinba-dezu cer eranzun esan dizarazu cergatic ambeste desprecio? badezu cer eranzun<sup>400</sup>? ez nola eztezu negar eguiten ambeste desprecio eta atrevimentueren ecusir? Atozte Ceruco Aingueruec, Serafinec, Espiritu Soberanoa, atozte eta eguiñeza-zute negar zuen buru Sagradoa erituric eta altrajaturic ecusiric. Atoz O Virgiña dolorosa atoz eguiñeza zu negar amaren viozarequin ecusiric ilcendela egun bat-ean afrentaric den andienean zure Semea. Veguira dezazute nola desmaiacen eta nola acabacen duenvicie Magestade Soberanoac gure remedioagatic. Eta ar-quidaitequela guizonic au ofendicera atrevidaitequenic<sup>410</sup>. O vajeza guizona-reна. Eabada guizona muguidadiela zure vioza compasiora ecusiric illican zure pecatuegatic Jaungoicobat gucie. Ea eguiñezagun negar gucioc au ofendituas. OAingueruen Erregina OJaungoicoaren eta pecatarien Ama animadichazu gu-re viozac barcacioa escacera onen bearbara, eta au escacen dugu eguiasqui Ea clamadezagun ez gueiago pecaturic Aitabat ain onaren contra lenago il au ofenditu baño, eta orainderañocoas escadizogun barcacioa esatendegularic N. J. C.*

## VOCABULARIO

- ABARASTASUN. *O Jesus Ceruco abarastasuna* (91).
- ABIA(TU). *abiacenda billa* (294); *abiacenda caminacen* (298).
- ACABATU. *ilcen Jesus, acabatuzuen bere bicie* (362).
- AFORRA(TU). *Ecusiric finalmente Pilatosec Judioac zeudela aforraturic beren lendabikico pretensiōan* (277).
- AGAR(TU). *Agertu. agartuciraden guciec orduco* (229).
- AGUIZ. *Oso. eta aguiz gogotic* (165).
- AICIÑA. *segui aicina esaten du Justici Divinoac* (231); *iende arren gucion ai-ciñera* (267).
- AIEQUETA. *aiequeta agoniec arrapatu izarditen odola isurizuen arteraño-coan* (125); *Aiequeta veguietatic, agotic eta sudurretic odola votaceráno-coan* (189); *aiqueta aragui gucie gorrituarterañoocoan* (224).
- ALDERAN BESTE. *Zurevioza alderan beste pasacen zuena* (53).
- ALLEGA(TU). *cembateraño allegacenda zure ichutasuna* (285).
- ANDI(TU). *Hazi, puztu. Andicenzaio gorpuza* (224).
- ANDIE. *eta ain andie sentimentue* (1).
- ARANCE. *Corona dena arance zorroces betearequin* (251); *burue aranza zorrroces josiric* (257).
- ARERACO. *eta instateco ateracen areraco* (82).
- ARROITU. *Adicenditu Jesusec soldaduen arroituec* (145).
- ASURI. *asurieren afarie* (78).
- BARRENA. *Jerusalengo carricac barrena* (298).
- BARRU. *Zure pechoaren barrunean* (324).
- BEAZUN. *Zure atrevimentuec ematentiotela edatera beazuna eta ozpiña* (39).
- BELAURICO. *belaurico iarriric* (103); *Baño ez sola(men)te iarricen belaunico bacarri* (106).
- BIALI. *bializuten* (197); *Herodesengana bialcea* (201).
- BULCAZON. *bazuec ematencitioben bulcazonac* (153).
- BURNI. *Iozuen bearondoan burnisco escubatequin* (165); *cate gogorraquin, eta burniscoaquin* (222); *burnisco azoteaquin* (234).
- CARRASI. *eguitenzuelaric carrasi milagrosobat* (359).
- CARRICA. *Jerusalengo carricac barrena* (298); *Jerusalengo Carrica bezala* (301); *carricac erregatues* (303); *Amarguraco Carrican* (305).
- COROA. *Norc aditudu onelaco coroac* (261).
- COSTU. *odolprecioaren costus redimituric zautenac* (374).
- DEUS. *archarbatec eztuela deustan iduquibear Jaungoicobaten borondatea?* (117).
- EBEN. *Hauen. Avertencieben conforme* (42); *Yruegun ebetatic* (74).
- ECUSCARRI. *Nola ezta austen gure vioza ecuscarrilastimoso onen vistan?* (364), *ecuscarriura ecustera* (157); *cer ecuscarrie ain lastimosoa* (255).
- ECUSI. *Ikusi. ecustenzuen erobazuec bezala* (96); *ecusiric ejemploa* (112).

- EGAL. *Magestade Soberanoa estalcen cinucen egalac* (219).
- EGUIN(TEN). *indignazaitea cere contra cergatic orobat eguintenduzun zuc pecature eguintenduzunean* (274).
- ERAGUI. *Jaso. josiric eraquincendute gora* (336).
- ERANTZI. *bereala eraztendute asuri inocentea* (287).
- ERCANACIO. *uciric ercanacioco figura* (212).
- ERDESI *erdesizazule* (55).
- ERI(TU). *Herir. Ongui, iceguinbadut cergatic ericenazu?* (174).
- ERRABIE. *aien errabie aplacececo* (265).
- ERREGACEA. *erregacea onec ezpadizu indar ematen* (129).
- ESQUERGABETASUN. *O esquergabetasuna* (369).
- ESTUPENA. *Ocercombatea, cer estupena* (127).
- EZAGUMENA. *Ezagueran? pasio Santue bearden frutuarequin proponiceco arguitasuna, Ezagumena* (57).
- EZEZAGUN. *Oranicere ezezagunac* (377).
- EZTOPA(TU). *besteac eztoparacirc botacen zuten lurrera instanteoro.*
- GAIZQUIEGUILLE. *gaizquieguillebat balice bezala* (302).
- GUEN(DU). *guenaraztera* (198); *vicie guenceco* (199); *anguencentio* (205).
- GUIENA. *bere pasio santuen guiena atormentatuzutenac* (34).
- IANZI. *iazten duzute pobrare soñecoa ematen diozutenean* (220).
- IAQUIN. *dembora iaquin batean juntacencirela aren erioza berricera* (11).
- IAZARRI. *zaudete iazarriric nerequin* (89).
- ICHUTASUN. *cembateraño allegacenda zure ichutasuna* (285).
- IDIQUI. *idiquicendirade Palacioco ateac* (294).
- IECHI. *aren corpucetic iechiric lurra erregatu zuen arterañocoan* (126).
- IENDE. *ateracenda iende gucie* (157).
- IEQUI. *Jeiki. iequicen aren Magestadea* (79).
- IÑORA. *Zuc badaquizu nere jaun eta Jaungoicoa iñorare ecin juan naiteque-la zugabe* (321).
- IOAN. *Supliciora ioateco* (302); *bai alada, ala iuanbeardu* (304); *eta ioan cen bere discipuluaquin Oliveteco mendira* (79).
- ISASI. *guencen ditiote soñecoac aragui puscaquin ceinceuquier isasieci llagata-co odolaquin* (331).
- IZARDI. *Jaungoico guizonaren izardi ain andia* (131).
- LAMENTACIO. *Profeta Jeremías Santuac ocasio artan disponitu citien lamentacio eta negarras* (9).
- LARRUGORRI. J. C. *larrugorrien dago* (220); *cenengatic nagoan larrugorrien* (384).
- LISTU. *besteac botacencioten listuac* (154).
- OACE. *Ocer oaceau Jaungoicoaren Seme batenzat* (334).
- ODOLUS(TU). *nola baicegoan Salvadorea ain odolustua* (243).
- ONDO. *besteac iocenzuten lanzan ondoaquin* (155).
- OÑ. *Oin. gurucearen oñean* (343).
- OÑECE. *oñece larri* (54).
- OPACE. *Aurkipen. O Cer opacea au* (306).
- OZPIÑ. *ematentiotela edatera beazuna eta ozpiña* (41).

- PESALUMBRE. *Ainbestecoa izanducenpena, ainbestecoa pesalumbrea* (1);  
*demostracio pesadumbrescobates* (6).
- PIADADE. *obra piadadescoau* (242).
- PREVENITU. *cein ceuqueten prevenituric crucificaceco* (334).
- SERVIDADE. *considerachezte servidade correspondicen zaienaquin* (45).
- SINO. *amorio ain Altuaren espresioneac manifestaceco egonbeanuquela sino  
divinoas abrasaturic* (59).
- SOMIN. *penasomin oriecgatic* (54); *mirra tristea eta somina* (85).
- SORBALDA. *cargacendute aren sorbalda llagatuetan* (293).
- US. Huts. *nola eceradete illcen penaren uses?* (299); *Nola ezcara ilcen damueren uses?* (364).
- ZARZAR. *soñeco zarzar batequin, adicera emateco burlesco erreguebat cela* (252).

